

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Aldatzen duena azaroaren 18ko 46/2009 Foru Agindua, zeinak onetsi baitzuen aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea (uztailaren 18ko 3/2019 Foru Aginduak aldatua)

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 3/1989 Legearen 33. artikulua (16/1997 Legeak aldatutakoa, azaroaren 7koa), urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.2 artikuluekin lotuz, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuena, xedatu zuen bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako langileen aukeraketa arauz zehaztuko diren prozeduren arabera hautatuko direla, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren irizpideei erreparatuz, ahal bezain azkar eginez. Horrez gain, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 58. artikulua, Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartu zuena, lege prozedura berretsi zuen eta euskal administrazio oro gaitu zuen gai horri buruzko araudi propioa ezartzeko; bidenabar, agindu horrek hainbat hautapen irizpide ezarri zituen, modu antolatu eta lehenetsian.

Aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartu zuen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduz geroztik pilatutako esperientziak gomendagarri egiten zuen araudia eguneratzea eta egokitzea aldi baterako enplegu poltsak sortzeko esparruan, hainbat hautapen prozesu egitearen ondorioz; hala, lehenago aipatu bezala poltsak sortzean azkartasun eta eraginkortasunez jokatu ahal izatea da helburua. Aurrekoarekin bat etorritik, uztailaren 18ko 3/2019 Foru Agindua onetsi zen, hain zuzen, azaroaren 18ko 46/2009 Foru Agindua aldatzen zuena.

Une honetan, beharrezkoa da beste aldaketa bat egitea, poltsa bateko kide izateko eskubi-dea duen kolektiboa zehazteko, hau da, zehazteko pertsona bera ez dela agertu behar hierarkia desberdineko poltsa bereko zerrendetan.

Bestalde, 9.3.2) artikulua aldatu behar da, aplikazio logikari erantzuten dion eduki bati egokitzeko, eta zerbitzu eginkizunak betetzen dituzten titularrei gordetako lanpostuak hobekuntza prozeduraren bidez betetzea errazteko, lanpostu huts bat betetzeko edo ez betetzeko eman den alde batera utzita.

Era berean, uztailaren 18ko 3/2019 Foru Aginduaren bidez egindako aldaketan, azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 6. artikulua aldatu zen. Testua kopiatzean egindako akats baten ondorioz, azken paragrafo bat kendu zen, 46/2009 Foru Aginduan jasota zegoena eta ezabatu nahi ez zena; beraz, orain berriro eranstean da.

Bat etorritik Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren IV. kapituluaren aurreikusitakoarekin, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen VI. tituluari dagokionez, bete da legegintzako errege dekretu horrek 37. artikuluan aipatzen duen nahitazeko negoziazioa.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egituraren eta Funtzionamenduaren Araudia onartzen duena, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40.11, 97.e) eta 98.3 artikuluekin lotuz, Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 3/1989 Legearen 33. artikuluari dagokionez (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua), hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4. artikulua (uztailaren 18ko 3/2019 Foru Aginduaren bidez aldatu zena), 7. puntu bat gehituta, eduki honekin:

7. Araudi honen 12. artikuluan ezartzen den Aldi Baterako Enplegu Poltsen Jarraipen eta Kontrol Batzordeari urtero emango zaio puntuka antolatutako poltsen osaeraren zerrenda eguneratua, poltsak banakatuta eta poltsetako kide guztiak barne hartuta, behin betiko baja eragin dutenak izan ezik.

Bigarrena. Aldatzea azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 6. artikulua (uztailaren 18ko 3/2019 Foru Aginduaren bidez aldatu zena), 3. puntu bat gehituta, eduki honekin:

3. Pertsona bakoitza zerrenda bakar batean sartu ahal izango da poltsa bakoitzerako, ezarritako hierarkian maila handiena duena (poltsa, poltsa subsidiarioa eta zerrenda subsidiarioa), eta, beraz, maila handiena duen zerrenda baino maila txikiagoko zerrendetatik kenduko dira.

Hirugarrena. Aldatzea 9.3.2) artikulua, hau esango duena:

9.3.2) Urtebete baino gehiago irautea aurreikusita dagoen zerbitzu eginkizuna betetzeko bitarteko izaera.

Laugarrena. Foru Arau hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 23a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta GOFeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Politiketako zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ